

ARBOLA ESKUZABALA

Testua eta irudiak: SHEL SILVERSTEIN

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 19 x 25,5 cm. 64 or. 15 €.

Arbola eskuzabala (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-906-7. Kalandraka-Pamiela.

El árbol generoso (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-961-8. Libros para soñar.

A árbore xenerosa (galegoz)

ISBN 978-84-8464-962-5. Tras os montes.

L'arbre generós (katalanez)

ISBN 978-84-8464-963-2. Llibres per a somniar.

Bazen behin arbola bat...

mutiko bat maite zuena.

eta mutikoak haren hostoak biltzen zituen

haiekin koroak egin eta basoko errege bihurtzeko...


“Arbola eskuzabala” 1964ko klasiko bat da, adin guztietako irakurleentzat, klabe kritikoa hainbat gogoeta eta irakurketa planteatzen dituen: adiskidetasun leial eskuzabala, maila bereko ordainik ez duena; gure planetarekiko harreman suntsitzailea; beharrian materialen eta ukiezinaren arteko kontrastea, zoriontasunera iristeko bidean; familiari buruzko parabola bat ere bai...

Testua ekintzen segida dinamiko bat da, arbolaren irudi zentralaren inguruan, pertsona batekiko interakzioan. Bizitza oso bat islatzen da istorio samur hunkigarri honetan, tristezia ukitu bat ere baduena: haurtzaroan hasi, biak jolasean aritzen ziren garaian, heldurara eta zahartzarora arte. Aro horien guztien arteko aldeak “maite izatearen” eta “behar izatearen” bizi-jarreraren arteko kontrasteak markatzen ditu. Trukean ezertxo ere espero gabe, mugarik gabeko eskuzabaltasuna eta maitasuna dira arbola horren ezaugarriak: bera zoriontsua da Mutikoa zoriontsua den bitartean.

Shel Silverstein-ek lau urte eman zituen “Arbola eskuzabala” argitaratu gabe, harik eta Tomi Ungerer-ek Ursula Nordstrom argitaletxera bidaltzera adoretu zuen arte. “Bizitzak amaiera triste ederrak dituelako. Ez dago barre egin beharrik, nahiz eta nire lan gehienak barregarriak izan”, azaldu du egileak, zeinaren liburuek mugarik gabe amets egitera eta pentsatzera bultzatzen baitute.

Maila estetikoan nabarmentzekoak dira zuri-beltzeko irudien ekonomia, minimalismoa eta adierazkortasuna, biñeten estetika berarekin eginak.

2. edizioa
urria, 2021



■ **Gala:** eskuzabaltasuna.

■ **Gomendatutako adina:** 8 urtetik aurrera; helduak.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** irakurketa anitzak eta gogoetak; bizialdiak; sinbolismo estetiko eta literarioa; minimalismo grafikoa.

Shel Silverstein

(Chicago, 1930-1999)

Illinois-eko Unibertsitatean eta Chicagoko Arte Ederren Fakultatean ikasi zuen. Helduentzat egin zituen lehen marrazkiak *Pacific Stars and Stripes* delakoan argitaratu ziren 1950eko urteetan, Estatu Batuetako armadak Japonia eta Koreara bidali zuenean. Chicagora itzuli zelarik, hainbat aldizkaritan argitaratzen jarraitu zuen. 1957tik 1970eko hamarkadaren erdialdera arte *Playboy* aldizkariko irudigile nagusietako bat izan zen. 1963an hasi zen haurrentzako liburuak eta ilustraturiko poema bildumak argitaratzen. 1984an Haurrentzako Album Onenaren (audioliburu edizioan) Grammy Saria jaso zuen. Haren obrak 30 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira eta 20 milioi aletatik gora saldu du. Aldi berean, artearen beste alderdi batzuk landu zituen, hala nola musika, konposizioa -beraren kanta batengatik Oskar eta Urrezko Globorako izendatua izan zen-, antzerkigintza eta zinema eta telebista gidolaritza.

<http://www.shelsilverstein.com>



kalandraka

www.  Pamiela .com
etxea
soitxate@pamiela.com